



Jaia + errespetua = denontzat gozamina

Garai honetan, jaiak dira herri askotan. Asko eta askorentzat, ondo pasatzeko egunak heldu dira, lagunekin elkartzeko egunak, jaiaz gozatzekoak. Egun hauetan askatzen dira urtean zehar usadioak eutsi dituen sentimendu asko; pozez eta emozioez zoratzeko egunak dira. Baina, era berean, muturreraino eramaten diren egunak dira eta agerian geratzen dira, inoiz baino argiago, gure gizartetik baztertu nahiko genituzkeen jarrera batzuk.

Jaiak lotuta daude balioen munduarekin, jaiak erreproduzitzen dituzte gizarte-ordena, botere-harremanak eta, beraz, bizitzan zehar gertatzen diren bereizkeriak jaietan ere izaten dira, batzuetan, modu ikusgarriagoan. Jaietan ere islatu behar da berdintasunezko gizartearen aldeko borroka, pertsona guztien eskubideak errespetatzen dituen gizartea. Ez alkohola, ez jaia bera, ez dira aitzaki emakumezkoen eta gizonezkoen arteko harremanak berdintasunezkoak ez izateko, emakumeak sexu-objektu gisa tratatzeko, edo zenbait tokitan segurtasun eza edo beldurra sentitzeko.

Erasorik gabeko jaiak nahi ditugu, baita horiek sustatzen dituzten jarrerarik gabekoak ere. Hortaz, jarrera aktiboa eskatzen dugu emakumeak errespetatzen ez dituzten edozein adierazpen fisikoren edo hitzekoren kontra. Gure jaietan berdintasunezko harremanak egotea nahi dugu, bi alderdiek onetsiak, non emakumeek jaia eta eremuak partekatzeko gizonezkoek duten eskubide bera izango duten, haien segurtasuna eta eskubideak bortxatuak izan gabe.

Horregatik *Jaiak + errespetua = denontzat gozamina* mezua zabaldu nahi dugu. Errespetua askatasunaren berme delako.